

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI IRTEERA

Azkeneko eguna gaur, Bertizen barrena ibiltzeko

Etalarretik Sunbillara egingo du irteera, igandean, Mendiriz Mendik. Bertizeko Parke Naturalean barrena ibiliko dira, eta bertara joateko, 07:30etan abiatuko dira Atsegindegitik. Gaur da izena emateko azken eguna, 20:00etatik 21:00etara elkarrean: bazkideek 13 euro, eta ez direnek 16 euro. ||

■ HERNANI KULTURA

Hariak eta ahotsa jolasean gaur, Biterin

'Harian' emanaldia eskainiko dute Eñaut Elorrietak eta Kaabestri Ensemble boskoteak, 20:00etan hasita.

KONTZERTU berezia izango da gaur, Biterin. *Harian* emanaldia eskainiko dute, elkarrekin, Eñaut Elorrieta abeslariak eta Kaabestri String Ensemble taldeak, harizko instrumentuak jotzen dituen boskoteak. Iluntzeko 20:00etan izango da, eta bertan egon nahi duenak, aukera dauka oraindik, azkeneko sarrerak erosteko; Biterin bertan, 7,5 euroan.

«Klasikoa bezain berritzailea» da ikuskizuna, aurreratu dutenez: «erronka kantariarentzat, bere ondoan gauden guztiontzat, eta baita publikoarentzat ere». Elorrietak jarriko du ahotsa, Oscar Lopezek eta Igor Torrek biolin doinuak, Arkaitz Martinezek biola, Jon Larrazek txeloa, eta Paloma Torradok kontrabaxua. Jolasean ariko dira hariak eta ahotsa, «doto-



Elkarrekin ariko dira Eñaut Elorrieta abeslaria, eta Kaabestri String Ensemble hari-boskotea.

reziaz eta zehaztasunez ziprztindutako notak, eta Eñauten ahotsa senda, libre eta zabal».

'Lur' antzezlanak, larunbatean Hurrengo zita, haurrentzako antzerkiarekin izango dute, Biteriko areto nagusian. Izan

ere, *Lur* antzezlanak eskainiko du Xake Produzioak konpainiak, larunbatean, eguerdiko 12:00etan. 7 urtetik gorakoenzatzat da, eta sarrerak salgai dauka, Biterin bertan.

Ane bilobari, berarentzat propio egindako panpina opari-

tuko dio Julianek, eta bidaia zirraragarria hasiko dute hirurek. Baina abentura irudimentsua dirudienak lagunduko du berbideratzen Aneren eta Jon aitaren arteko harremana. Onarpen arazo bat dauka Jonnek. Izan ere, Ane mutila da. ||

■ HERNANI ERRUGBIA

Azken txanpari ekiteko, partidu zaila Landaren

Hilabeteko atsedenetik bueltan, igandean jokatuko du Hernanik, eguerdiko 12:00etan, Alcobendasen kontra. Lau partiduren faltan, mailari eusteko borrokan sartuta daude trikoloreak, bete-betean.

ASTEBURU honetan sartuko da Hernani, Ohorezko Mailako azken txanpan, fase erabakigarrian. Lau partidu falta dira, eta horietan aurrenekoa, igandean jokatuko du, Landaren, Alcobendasen kontra. Eguerdiko 12:00etan izango da.

Hilabeteko atsedenetik buel-

tan, partidu zaila izango dute trikoloreek: hirugarren sailkatua da Alcobendas, eta Kopako finala ere jokatuko du, Bartzelonaren kontra.

Hernani, berriz, bete-betean dago sartuta, mailari eusteko borrokan. 10garren dago, eta ez dauka alde handia, atzeko bi-

ekin: bi puntu La Vilarekin, eta sei puntu Gernikarekin. Hori horrela, partidu zailak izanda ere, puntuak pilotzeko borrokatu beharko dute trikoloreek, Ordiziaren kontrako derbian, eta Independiente eta El Salvadorren zelaietan. Puntu bakoitzatza izan daiteke klabea.

Hernaniko lau jokalarik, Euskadirekin astelehenean Euskal Ligako taldeari dagokionez, berriz, Hernaniko lau jokalarik deitu ditu Euskadiko selezioak, datorren asteleheneko entrenamendura: Alazne Macicior, Ane Puerta, Igone Martin eta Olatz Arca. ||

■ HERNANI BERDINTASUNA

'Biziraupenerako zaintza' liburuaren aurkezpena, 26an

Amaia Rodriguez Oñatibiak jaso zuen Berdintasun Arloko IV. Ikerketa Beka, eta horrekin, liburuak egin du: *Biziraupenerako zaintza*; *Hernaniko inudeak 1900-1944*. Martxoaren 26an aurkeztuko dute liburuak, arratsaldeko 18:30etan, Biterin. ||

■ EREÑOTZU OLAK

Ezohiko batzarra gaur, zuzendaritza berritzeko

Ezohiko batzarra deitu du Olak Auzo Elkarrekin gaurko. Auzo Udalaren aretoan izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita, eta gai bakarra landuko dute: zuzendaritza aldaketa. ||

■ HERNANI GOIZ EGUZKI

Babarrun jaterako, gaur arte aukera

Larunbat honetan egingo du babarrun jatea, Goiz Eguzkik. Eta bertan bazkaldu nahi dutenek, gaur dute azkeneko eguna txartelak erosteko, egoitzako tabernan bertan. ||

■ ASTIGARRAGA AEK

Gurasolagunek, hitzordua gaur

Ostegunero bezala, ikastolako jangela txikian elkartuko dira gaur Gurasolagun egitasmoko partehartzaileak; euskeraz dakiten gurasoak, ikasten ari direnak, eta haien seme-alabak. Arratsaldeko 16:45etatik 18:30etara izango da. Izena emateko: 943 33 50 64 edo iker-g@ae.eus. ||

Sagardo naturala

SYGARDOTEGI ALBERRO

ALBERRO SAGARDOTEGIA

943 55 00 19

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK

943 55 56 94

Txinza, 10 - HERNANI

Montajes

ROYMA

ATEAK, LEIHOAK ETA PERTSIANAK

1990ETIK HERNANIN

943 100 577

Elkano kalea, 10. Hernani
www.montajesroyma.com

TAXIAK: 943 550093 **UDALTAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 **Areizaga:** 943 452708
Korrea Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 33110
 Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022**

EGURALDIA
GAUR Giro eguzkitsua izango dugu gaur. Hotzetik hasiko dugu eguna, lainoak tarteko. Baina berehala garbitu, eta epeltzen hasiko da. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da. **Min.3° / Max.15°**
BIHAR Eguzkitsua egongo da bihar ere, eta tenperatura nabarmen igoko da, gainera, hegoaldeko haize ahulari esker. Arratsaldean, brisa sartuko da. **Min.5° / Max.20°**
 (euskaime)

HERNANI OBRAK

Hasi dituzte lanak, Sagastialde auzoko plaza berrurbanizatzeko

Atzo jarri zituzten obrak martxan, eta bi hilabeteko iraupena aurreikusitu du Udalak. Espaloien koskak konpondu, eta ingurunea txukunduko dute.

MARTXAN dira Sagastialde auzoko plaza berrurbanizatzeko lanak. Atzo eraman zuen bertara, beharrezko makineria eta materiala, obraz arduratuko den enpresak; eta atzo bertan ekin zioten lanari.

Zenbait berrikuntza egingo dituzte plazan, Sagastialdeko bizilagunen eskaerei erantzunez. Udalak azaldu du, auzotarrekin landu eta haien pro-

«Espaloien koskek, irisgarritasuna oztopatu, eta uraren irteera eta jasotzea zailtzen dute», azaldu du Udalak.

posamenak jasota zehaztu zituela egin beharrekoak. Izan ere, plazako espaloiek koskak dituzte, «eta horrek, irisgarri-

tasuna oztopatzeaz gain, uraren irteera eta jasotzea zailtzen du», azaldu dute.

Hori horrela, espaloien kosken arazoa konponduko dute, baina horrez gain, ingurunea ere txukunduko dute, «bizilagunek aisialdirako guneez atsegina izan dezaten».

Udalak aurreikusitu du, bi hilabeteko iraupena izango dutela obrek. ||

HERNANI AIREAREN KALITATEA

Airearen kalitatearen inguruko kezka azaltzeko, kontzentrazioa

Larunbatean egingo dute elkarretaratzea, eguerdiko 12:00etan Plaza Berrin. Beste bilera bat ere deitu dute, datorren astearterako.

HERNANIKO airearen kalitatearekin kezkatuta, biltzen hasi da herritar talde bat. Martxoaren 12an egin zuten bigarren bilera, herritar guztiei irekia, eta bertan zehaztu zituzten, hurrengo bi asmoak.

Batetik, kontzentrazioa deitu dute larunbat honetarako, herriko airearen kalitatearen inguruko kezka azaleratzeko. Eguerdiko 12:00etan jarri dute zita, Plaza Berrin.

Hurrengo bilera, martxoaren 26an

Eta bestetik, gaiaren inguruan lanean jarraituko asmoa erakutsi dute. Hori horrela, hurrengo bilerarako data ere jarri zuten: martxoaren 26an izango da, datorren asteartean,



Martxoaren 12an egin zuten bigarren bilera, herritarrek.

arratsaldeko 19:00etan Biteri kultur etxean.

Irekia izango da hirugarren bilera hori ere, eta bertaratze-

ra gonbidatu dituzte, gaiaren inguruan kezkatuta dauden herritarrak, eta parte hartu nahi dutenak. ||

HERNANI KOORDINADORA FEMINISTA

Bilera gaur, Martxoak 8 baloratzeko

Koordinadora Feministak bilera irekia deitu du gaur, 18:30etan Biterin. Helburua da Martxoaren 8aren balorazioa egitea. Parte-hartzea irekia da. ||

HERNANI TXANTXANGORRI ELKARTEA

Sei musulari gaur, hiru txapelaren bila

Gaur jokatu dituzte, Txantxangorri elkarteak mus txapelketaren finalak. Banakakoan, Joxe Leonen eta Ceci Jauregiren artekoa izango da lehia; eta binaka, Jesus eta Iñigo ariko dira batetik, eta Ander eta Arkaitz bestetik. Txantxangorri elkarteak, bestalde, igandean egingo du bere ohiko batzar orokorra. Elkartean bertan izango da, goizeko 10:00etan hasita, aurreneko deialdian; eta bestela, ordu erdi beranduago, 10:30etan, bigarren deialdian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JACINTA ERDOCIO ERDOCIO

Atzo hil zen, 96 urte zituela

- Goian Bego -

Seme-alabak: Ignacio eta Ignacia Iza; bilobak: Nerea eta Xabi; birlobak: Xuban eta Aieko; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko martxoaren 21ean

Helbidea: Zikuñaga auzoa
 OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:30ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria gutzia prest. Bezero kartera handia eta errentagarritasun frogagarria. Deitu: **656 709 251**

Langile bat behar da SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, ahal bada esperientziarekin. **Interesatuak deitu 943 690 643**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Latxe

Urumeako ur-titilatan barrena

8. alea kalean!

latxe.kronika.eus
943 33 08 99

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

HERNANIARRA BAZARA
URTE OSOAN ZEHAR

ERREMONTA
GALARRETAN

8€

SARRERA

%60ko beherapena
izango duzu urte osoan zehar
NAN aurkeztuz

SAGARDOAREN TXAPELKETA 2019
MARTXOA-APRILA